

Alpino Tabira – Barne-araudia

1 Bazkideen altak eta bajak

1. Klubeko bazkide egiteko, horretarako dagoen inprimakia bete behar da eta NANrako neurriko argazki batekin batera aurkeztu beharko zaio Zuzendaritza Batzordeko edozein kideri. Bera arduratuko da hartu eta hurrengo batzarrerera eroateaz, eta han onartu egingo da edo atzera botako da. Eskaria egiten duenak Klubaren estatutuak eta araudiak ezagutu beharko ditu, eta onartu egiten ditu bazkide izateko eskaria egiten duenean.
2. Eskari bat onartzen ez bada, eskatzaileari idatziz jakinaraziko zaio, erabakia hartu eta hurrengo hamar egunen barruan. Ezezkoa eman zaion pertsona horrek apelatu egin dezake, bazkide baten bitartez, ezezkoa jaso ondoren egingo den hurrengo Ohiko Batzar Nagusian.
3. Bazkide izateari uzteko arrazoiak: hiltzea, baja eskatzea, kuota ez ordaintzea, Zuzendaritza Batzordearen erabakia. Baja eskatuz gero, Klubaren Idazkaritzan jakinarazi behar da, eta berehala egingo da.

2 Presidentea eta Zuzendaritza Batzordea

1. Zuzendaritzako batzordekideak hautatzeko Ezohiko Batzar Nagusia egingo da gai bakar horrekin. Batzordekideek agintaldia amaitzen dutenean, berriak hautatzeko batzarra egingo da agintaldia amaitzen den urte bereko urriaren 31 baino lehenago.
2. Zuzendaritzako hautagaitzak, gutxienez, hiru pertsonakoak izango dira, Presidentea, Presidenteordea eta Idazkaria. Presidente izateko, gutxienez, urte biko antzintasuna izan behar da bazkide gisa, eta adinez nagusia. Hautagaitzak aurkezteko lekua eta epea Ezohiko Batzar Nagusirako deialdia egiten denean zehaztuko da.
3. Zehaztutako lekuan eta epean, Zuzendaritza Batzordea hautatzeko unean, hautagai bat baino gehiago badago, araudi honetako 3. Puntuan zehaztutako jardunbideari ekingo zaio. Hautagaitza bakarra badago, horixe hautatuko da bozkatu barik.
4. Zuzendaritza Batzordearen ohiko agintaldia hiru urtekoa izango da.
5. Zuzendaritza Batzordea osorik eta batzordekideek banaka kargua utzi dezakete dimisioa eman dutelako, karguduna hil delako edota zentsura-mozioa aurkeztu delako. Banakako kargu uztea bada, Zuzendaritza Batzordeak beste bazkide bat hautatu ahalko du kargua betetzeko. Batzordeak osorik kargua uzten badu, zuzendaritza berria hautatzeko Ezohiko Batzar Nagusia egingo da hilabeteko epean, gehienez.
6. Zuzendaritza Batzordea, gutxienez, hileroko batzartuko da. Abuztuan ez du batzarrik egingo. Landutako gaiak akta-liburuan jasoko dira.

3 Bozketak

1. Batzar Nagusietan zein Zuzendaritzan Batzordeetan, erabakiak boto baliiodunen gehiengo soilaz hartuko dira. Beraz, baliiodun proposamen bakarria aurkezten bada, onartu egingo da, baldin eta aldeko boto gehiago baditu ezezkoak baino. Proposamen bi badaude, boto gehiago dituen onartuko da. Proposamen bi baino gehiago badaude, emandako boten erdia gehi bat dituen proposamena onartuko da; bestela, bigarren bozketan, lehenengoan boto gehien izan dituzten bietatik boto kopuru gehiago dituen onartuko da. Berdinketa badago, berriro bozkatuko da eta, ostera ere, berdinketa emanez gero, Presidenteak kalitateko botoa emango du erabakitzeke.
2. Ezkutuko bozketa egingo da botoa emateko eskubidea duen bertaratutako bazkideren batek horrela eskatzen badu eta pertsonengan eragina badu.
3. Batzar Nagusietan, 18 urtetik gorako bazkideek izango dute botoa emateko eskubidea, eta Zuzendaritza Batzordeko batzarretan, batzordekideek.

4 Kuota

1. Bazkideek urteko kuota ordaindu beharko dute klubaren sostengurako.
2. Urteko kuota jaulkitzen denean, urtarrilaren 1ean, 65 urte edo gehiago duten bazkideek ez dute kuotarik ordainduko, beti ere, 10 urte edo hortik gorako bazkidetza badute. Abantaila hau izateko, bazkideak berak jakinarazi beharko dio Diruzainari, dagokion urteko urtarrilaren 1a baino lehenago.
3. Urteko kuota ordaintzetik erabat salbuesteko eskubidea izanen dute ofizialki% 25eko edo hortik gorako ezgaitasun maila aitortuta izanik mendiko jarduerarik egin ezin duten bazkideek.

4. Zuzendaritza Batzordeak proposatuta, Batzar Nagusiak bestelako salbuespenak eta kuota merkeagoak onartu ditzake urteko batzarrean, kuotaren zenbatekoa ere bai.
5. Bazkide sartu berriek sarrerako kuota ordaindu beharko dute onartuak diren urtean, urteko kuota bikoitzaren zenbatekoa izango da, gutxi gorabehera.
6. Urteko kuota bankuan helbideratuta ordainduko da. Bankuak atzera bueltatzen badu kuota bat, berriro helbideratzen denean, kudeaketa gastuak gehituko zaizkio zenbatekoari.
7. Kuota ordaintzeko azken eguna otsailaren 28a izango da. Egun horretarako kuota ordaindu barik duena baja izango da ez ordaintzeagatik.

5 Jardueren prezioak

1. Zuzendaritza Batzordeak ezarriko die prezioa jardueri. Arau gisa, bazkideek jardueran kostua ordainduko dute, eta bazkide ez direnek gehigarria ordaindu beharko dute.
2. 18 urtetik beherako bazkideek % 50eko deskontua izango dute jardueretan. Hori kalkulatzeko, autobuseko bidaiaren prezioaren % 50a hartuko da oinarri.
3. Zuzendaritza Batzordeak eskatuta, Batzar Nagusiak bazkideentzako bakarrik izango diren deskontuak aplikatzeko plana proposatu dezake. Gau bi baino gehiagoko irteeretan, deskontua izateko eskubidea dute bazkideek, baina beti ere, irteera egiten den aurreko urteko abenduaren 31 orduko bazkide baldin badira.
4. Ekintza baterako izena eman eta gero, interesatuak ekintza ez badu egiten, ordaindutakoa berreskuratu dezake, baina honako baldintzetan: (1) Ez du berreskuratuko autobusari dagokion zenbatekoa. (2) Beste kontzeptu batzuetako zenbatekoak berreskuratuko ditu, esaterako, ostatua, beti ere, Klubak berreskuratzen badu. (3) Itzuli beharreko zenbatekoari ekintza ordaintakoa aplikatu zitzaion deskontua kenduko zaio.

6 Bazkideen eskubideak eta betebeharrak

Bazkideek honako eskubide hauek dituzte:

1. Batzar Nagusietan parte hartzea hitz eta boto eskubidearekin (salbuespena izango da 3. atalean ezarritakoa).
2. Zuzendaritza Batzordeko batzarretan parte hartzea hitzarekin, baina boto barik.
3. Lokalak, mendiko materiala, liburuak, planoak eta abarrekoak erabiltzea, beti ere, kasu bakoitzean ezarritako araei jarraituz.
4. Kirol-lizentzia eskuratzea Klubaren bitartez.
5. Jarduerak proposatzea Zuzendaritza Batzordeari.
6. Klubetik kaleratuz gero, apelazio egitea hurrengo Ohiko Batzar Nagusian; batzarreko gaiak aztertzen hasi baino lehen egingo da aipatutako apelazioa.
7. Klubak antolatutako ekintzetan parte hartzea, lehentasunez eta prezio murriztuekin, bazkide ez direnen aldean.

Halaber, honako betebeharrak dituzte:

1. Klubaren arauak ezagutzea eta betetzea.
2. Klubeko pertsonetikiko eta gauzekiko errespetua izatea.
3. Helbidea (posta arrunta eta elektronikoa) edota bankuko kontu korrontea aldatzen denean, Idazkaritzari jakinaraztea.
4. Klubaren funtzionamenduan antzematen diren irregulartasunak salatzea.
5. Kluba bide onetik joan dadin kolaboratzea: batzar nagusietara joan, txangoetara...; oro har, parte hartzea antolatzen diren ekintzetan.

8 Bestelako arauak

Badira beste araudi batzuk, esaterako, mendiko materiala alokatzeko, lehiaketetakoak, liburutegikoa, lokala erabiltzeko eta abar. Horiek guztiak Zuzendaritza Batzordeak aldatu ditzake.

Ohiko Batzar Nagusian onartua – 2016ko abenduaren 17an. 4.3 apartatua gehitu da 2022ko abenduaren 17an.

Alpino Tabira - Reglamento de Régimen Interior

1 Altas y bajas de socias y socios

1. La solicitud de ingreso en el Club se extenderá en el impreso preparado al efecto, debidamente cumplimentado, y acompañado de una fotografía tamaño carné. La solicitud se entregará a cualquier integrante de la Junta Directiva, que la presentará en la primera reunión que ésta celebre, siguiente a la recepción, para su aprobación o denegación. La persona solicitante deberá estar en conocimiento de los estatutos y reglamentos del Club, y queda conforme con ellos por el hecho de pedir la admisión.
2. Si una solicitud es denegada, esta circunstancia le será comunicada por escrito a la persona solicitante dentro de los diez días siguientes a la toma de la decisión. La persona a la que se le haya denegado la admisión puede apelar a la primera Asamblea General Ordinaria que se celebre tras la denegación, por mediación de una socia o socio.
3. La condición de socia o socio se pierde por fallecimiento, voluntad propia, por falta de pago de la cuota o por acuerdo de la Junta Directiva. Las bajas voluntarias deberán ser notificadas a la Secretaría del Club, y serán de efecto inmediato.

2 La Presidencia y la Junta Directiva

1. La Junta Directiva será elegida en Asamblea General Extraordinaria que se reunirá únicamente para este asunto. Cuando se trate de una renovación ordinaria de la Junta, por agotamiento de mandato, la Asamblea se realizará antes del 31 de octubre del año de finalización del mandato.
2. Las candidaturas a Junta Directiva contarán como mínimo con una propuesta tres personas para ocupar la Presidencia, la Vicepresidencia y la Secretaría. La persona candidata a la Presidencia deberá contar con, al menos, dos años de antigüedad como socia o socio, y ser mayor de edad. Las candidaturas se presentarán en el lugar y plazo que se indique en la convocatoria de la Asamblea General Extraordinaria realizada para la elección.
3. Para la elección de la Junta Directiva entre las candidaturas presentadas en lugar y plazo, si hubiese más de una se usará el procedimiento de votación descrito en el Apartado 3 de este reglamento. Si hubiese una única candidatura, será proclamada sin necesidad de votación.
4. El mandato ordinario de una Junta Directiva será de tres años.
5. La Junta Directiva, así como sus integrantes individualmente, cesarán por dimisión, fallecimiento o moción de censura. En el caso de cese individual, la Junta Directiva podrá elegir una nueva persona para ocupar la vacante. En el caso de cese de la Junta al completo, se convocará una Asamblea General Extraordinaria para la elección de una nueva Junta en el plazo máximo de un mes.
6. La Junta Directiva se reunirá como mínimo una vez al mes, excepto en agosto, haciendo constar en el libro de actas cuanto se trate en la reunión.

3 Votaciones

1. Tanto en las Asambleas Generales como en las Juntas Directivas, las decisiones se adoptarán por mayoría simple de los votos válidamente emitidos. En consecuencia, en el caso de que existiera una única propuesta válidamente presentada, ésta quedará aprobada si cuenta con más votos afirmativos que negativos. Si hubiera dos propuestas, se aprobará la que más votos obtenga. Si hay más de dos propuestas, quedará aprobada aquella que obtenga la mitad más uno de los votos emitidos o, en segunda vuelta, la que obtenga más votos de entre las dos más votadas en la primera vuelta. En caso de votaciones con resultado de empate, se efectuará una segunda vuelta y, si persistiera el empate, la Presidencia deberá ejercer el voto de calidad.
2. La votación será secreta siempre que lo solicite alguna persona asistente con derecho a voto y, en todo caso, cuando afecte a personas.
3. En las Asambleas Generales tendrán derecho a voto todas las personas socias mayores de 18 años. En las reuniones de la Junta Directiva tendrán derecho a voto todas las personas integrantes de la misma.

4 Cuota

1. Las socias y los socios deberán abonar una cuota anual para el sostenimiento del Club.
2. Las personas socias que, a 1 de enero del año de emisión de la cuota, cumplan los requisitos de tener 65 o más años de edad y 10 o más años de antigüedad como socias, estarán exentas del pago de la cuota anual. Para acceder a este beneficio, será su responsabilidad comunicar esta situación a la Tesorera o el Tesorero antes del 1 de enero del año correspondiente.

3. Tendrán derecho a una exención total del pago de la cuota anual aquellas personas socias que, teniendo reconocido oficialmente un grado de discapacidad igual o superior al 25%, no puedan realizar actividades de montaña.
4. A propuesta de la Junta Directiva, la Asamblea General Ordinaria podrá aprobar cada año otras exenciones y rebajas en el pago de la cuota, así como el importe de la misma.
5. Las personas socias de nuevo ingreso deberán abonar, el año en el que son admitidas, una cuota de ingreso calculada como el doble de la cuota anual ordinaria.
6. El pago de la cuota anual se efectuará por domiciliación bancaria. Si una cuota es rechazada por el banco, al ser presentada de nuevo al cobro irá recargada con los gastos derivados de las gestiones realizadas.
7. El plazo para el pago de la cuota finalizará el 28 de febrero. La persona socia que para esa fecha no haya satisfecho la cuota será automáticamente dada de baja por impago.

5 Precios de las actividades

1. La Junta Directiva decidirá los precios de cada actividad, tomando como norma general que las personas socias paguen el coste de la actividad, y las que no lo sean paguen un recargo adicional.
2. Las personas socias que no hayan cumplido los 18 años tendrán una reducción en el precio de las actividades, calculada como el 50% de la parte del precio que corresponda al viaje en autobús.
3. A propuesta de la Junta Directiva, la Asamblea General Ordinaria podrá proponer un plan de descuentos aplicable únicamente a socias y socios. En el caso de salidas de más de dos pernoctas, el derecho a descuento será aplicable únicamente a quienes tengan esta condición a 31 de diciembre del año anterior al de la fecha de la actividad.
4. En el caso de que una persona se inscriba a una actividad pero no la realice, podrá recuperar parte del importe pagado, con estas limitaciones: (1) No recuperará el importe correspondiente al viaje en autobús. (2) Recuperará el importe correspondiente otros conceptos, como el alojamiento, pero solo si el Club recupera los importes correspondientes. (3) El Club restará al importe a devolver el descuento que se aplicó al calcular el precio de la actividad.

6 Derechos y obligaciones de socias y socios

Las personas socias tienen derecho a:

1. Asistir a las Asambleas Generales con voz y voto (salvo por lo dispuesto en el apartado 3).
2. Asistir a las reuniones de la Junta Directiva con voz, pero sin voto.
3. Usar los locales, material de montaña, libros, planos, etc. según las normas establecidas para cada caso.
4. Obtener la licencia deportiva a través del Club.
5. Proponer iniciativas a la Junta Directiva.
6. En caso de expulsión, apelar a la siguiente Asamblea General Ordinaria, tratándose este asunto antes de entrar en la materia propia de la Asamblea.
7. Participar en las actividades organizadas por el Club, con prioridad y precios reducidos respecto a las personas no socias.

Las personas socias tienen el deber de:

1. Conocer y cumplir los reglamentos del Club.
2. Guardar respeto a las personas y cosas que se encuentran en el Club.
3. Notificar a la Secretaría los cambios de dirección (postal y electrónica) y cuenta bancaria.
4. Denunciar cuantas irregularidades observe en el funcionamiento del Club.
5. Colaborar en la buena marcha del Club, acudiendo a las Asambleas Generales, excursiones y, en general, cuantas actividades promueva.

8 Otros reglamentos

Existen otros reglamentos para alquiler de material de montaña, concursos, biblioteca, uso del local, etc. que podrán ser modificados por la Junta Directiva.